**ERREPORTAJEA** MARIVI MIQUELE ELGOIBARTARRAK HAUR TXINATAR BAT ADOPTATU DU

**ELKARRIZKETA** JUDIT MURCIA · **GEHIGARRIA** EUSKALTEGIETAN ARIGERA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko azaroaren 22a/X. urtea/425. zkia



## Txinatik Elgoibarrera guraso berriekin

"GURASO ABERATSAK BAÑO, GURASO ONAK IZATIA HOBE" (esaera zaharra)

ARAMBURU

BITXIDENDA

OPARIEN EROSKETAK EGITERAKOAN KONTUTAN IZAN,

AURTEN ERE, 15 €KO GASTUAGAT1K

TXARTEL BAT EMANGO ZAIZULA,

ERREGE BEZPERAN EGINGO DEN

URREZKO BI ERLOJUREN ZOZKETARAKO



JOSE MARIA SAI.ABERRIA



MANOLI MENDIZABAL

AURTEN ZU IZAN ZAITE'KE!!!

San Frantrisko, 26 Telifaxa: 943 74 25 35



KALITATEAK, DISE1NUAK ETA PROFESIONALTASUNAK
GURE IZENA DEFINITZEN DUTE

ESKAINTZA BEREZIAK

a teōna

Jum auzunea, 1-A
20720 Azkoitia (GiPuzkoa)
Tfnoa. 943 85 17 55
Fax: 943 85 28 02

reHLI eta PREZIO
paregabeekin, aukera ezin hobe.a!

*Ate*
*Oholtza parketa*
*Leiho*
*Armairu enpotratu*
*Sukadeko altzaria*
*Eleldragaituak*






ona
Bariante

ATEAK
Blindatuak
Barrukoak

LEIHOAK
PVC
Aluminioa
Zura

ARMAIRU
ENPOTRATUAK
Neurrira

BILA ZABILTZAN GUZTIA AURKITUKO DUZU GUREAN

10 BARREN urteurrena





# Estimatzen diren dirulaguntzak

enetan estimatzen ditugu BARRENen jasotzen ditugun dirulaguntzak. Izan ere, hauek gabe ezingo genuke astekaria argitaratu, egungo kondizioetan ez behintzat. BARRENen aurrekontuaren %55, gutxi gorabehera, dirulaguntzei esker berdintzen dugu. Diru-iturriak asko dira, baina ez pentsa urte amaieran ur sobranterik izaten denik. BARREN astero banatzea garestia da, eta diru-iturri guztiak dira beharrezkoak.

Ikus dezagun, 2002an jaso(ko) ditugun dirulaguntzen iturriak eta gutxi gorabeherako jarioa:

. **Elgoibarko Udala:** 45.076 € / 7.500.000 pta.
. **Foru Aldundia:** 21.035 € / 3.500.000
**Eusko Jaurlaritza:** 18.631 € / 3.100.00 pta.
. **Mendaroko Udala:** 6.912 € / 1.150.000 pta.
. **Danobat koop.:** 3.606 / 600.000 pta.
. **Kutxa fundazioa:** 1.803 € / 300.000 pta.
. **Goiti koop.:** 1.502 / 250.000 pta.
. **Estarta koop.:** 300 € / 50.000 pta.

Ikusten duzuen moduan, Udala da laguntza handiena eskaintzen diguna. Udalak hasiera-hasieratik erabaki zuen BARRENi diruz laguntzea, merezi zuela herriko dirua bertan inbertitzea. Bestalde, dirulaguntza pribatuak ere azpimarratu nahi ditugu. Danobatek, Kutxa fundazioak, Goitik eta Estartak ere, bakoitzak bere neurrian, diru bat jartzen dute BARREN astekariak aurrera egin dezan.

Beraz, esker mila guztioi, bene-benetan. Zuon eskua ere ezinbestekoa izan da BARREN 10. urteurrenera iristeko. Gure desioa aurrerantzean ere zuek hortxe izatea da, aldamenean, laguntzeko prest, orain arte bezala.



# Ohituren gauza

Betidanik izan dut telebista bigarren mailako elementu entretenigarri bat bezala. Txiki txikitatik kalean eman nituen eguneko ordurik gehienak. Zazpi urte izan arte Errosario kalean bizi izan nintzenez, frontoian igarotzen nituen ikastolatik irten osteko ordurik gehienak, pilotajokoan amorratu. Eta besterik ezean elizpean futbolean, sakristauak baloia kendu edo elizatik amenazuka irtetzen zen arte.

Gauez ere, **OHO** zeneko laugarren mailaz geroztik ohean zerbait irakurtzeko zaletasuna sortu zitzaidan. Gaur egun gaurik gehienetan oraindik ere irakurgairen bat izaten dut lotarako lagungarri. Hala ere, kezkatzen hasia naiz nire buruarekin gero eta telebistazaleago bihurtzen ari bainaiz. Kezkatzen nauena zera da: sasoi txarrean zaletu naizela, programa nazkagarri eta ikusgaitzen aukera besterik ez baitute ematen. Eta hori ez ezik futbola barra-barra.

Oraintxe bota diot egunkariko telebistako orriei begirada. Astearte gaua da idazten dudan unea eta film bat ezik beste guztia badaezpadakoa da. Zorionez, aste tartean izan ditugun futbol partida pila datorren urteko martxora arte ez omen dugu izango. Ez da gutxi. Kontatu didate igande arratsaldetan kaleak desertizatu eta hainbat taberna gainezka egoten direla liga txapelketaren indarrez. Zuek hau irakurtzean ostirala izango da. Bihar jai dudala aprobetxatuz haurtzaroan hartutako ohiturak neureganatuko ditut. Kalean emango ditut telebista aurrean eman beharreko orduak, eta igandean, etzi, denborarekin hartu dudan usadio goxo bat: siesta eder bat futbolaren ordez.

**Gotzon Arrieta**

Kexak ........................................ 5
motz MOtZ ........................................ 8
gehigarria ........................................ 13
kiRolAk ........................................ 20
aGenda ........................................ 24

2002-XI-22

# Urruzunoren begi ezkutua

## Chupachusa



Informatikako irakasleak Chupachusa oparitzen digu egindako galdera ganoraz erantzuten badugu, edo erantzunak logika apur bat baldin badauka behintzat. Originala, ez?

Izan ere, hamaika erantzun xelebre azaldu ohi dira azterketetan: Zer da poligono bat? Emakume asko dituen gizona. Pentagonoa: 5 emakume, hexagonoa 6... Zeintzuk dira nerbio sistemaren estimulatzaileak? Txokolatea, kafea eta emakumeak. Intsektuaren zatiak? In-tsek-tu-a

Eta irakasleen esaldi errepikatuena: Etorkizunean gaur esandakoa izugarri erabiliko duzue. Adibidez: kalkulatu ilargiaren gainazaletik 67km-ko altueran dagoen astronautak (85kg) duen energia potentzial grabitatorioa.

Irakasle hauek ez al dakite ilargirainoko bidaia Hollywood-eko estudioetan grabatu zela?

Zer nolako erantzunak jasoko zituen nire informatikako irakasleak marrubizko eta Coca-Colazko chupachusak banatzen hasteko!

**Maite Uriarte**

**OHARRA:**

Barreneko 424. alean kaleratu genuen "Euskal Herriak bere eskubideak!" izenburuko eskutitzean akats informatiko baten erruz esaldi bat falta zen. Eskutitzak bere zentzua galtzen zuenez berriz argitaratzea erabaki dugu. Barkatu eragozpenak.

## EUSKAL HERRIAK BERE ESKUBIDEAK!

Egun bizi dugun gatazka politikoaren oinarriak herri bezela dugun eskubideen ukazioan dutela oinarria. Euskal Herria zazpi probintziak osatzen dugula. Euskaldunoi soil soilik dagokigula gure geroaren erabakiak hartzea. Horiek izan dira euskal eragile, alderdi eta sindikato aunitzek gatazkaren konponbiderako finkatu dituzten gutxiengoak, tartean Lizarra-Garazi akordioan. Egungo marko politikoak, Amejoramendua, Autonomia Estatutua, Frantziak agintzen duena, inposatuak diren neurrian, gainditze bidean jarri behar direla. Horiek denak hankaz gora jarri dira Ibarretxek egindako proposamenean. Helburua orain Espainian eroso bizi izatea da. Helburua orain ez da gure etorkizuna guk erabakitzea, baizik eta Espainian eroso bizi nahi dugun erabakitzea, beste aukerarik gabe. Eta hau, noski, gure Elkarte Autonomoan, **Baskongadetan.**

Orain dela 25 urte antzeko kinkan jarri gintuzten: edo Autonomo Estatutua edo ezer ez. Nafarroan hori ere ez: derrigorrez ezarri baitzitzaion Amejoramendua. Esatutoarekin Presoak Kalera, Estatutoarekin Nafarroa Euskadi izango d'a, Estatutoarekin... horiek ziren kalean irakurri ahal genituenak. 23 urte geroago gatazkak bere gordintasunean jarraitzen du. Egoera nahasi honetan eta aurrera begira, helduleku garbiei eustea komeni dela uste dut, proposamen guztiak bere sakontasunean aztertu eta Euskal Herriaren interesei begiratzea beste edozeren gainetik.

**P.M.**
**15357275-Z**

ASTEKARIA
BaRRen

Nalarroa enparaniza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
z. 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.cornibarren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarkc Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA Irati Agirreazaldegi, PueuzrrATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ADMINISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone OSOID, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorosliza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRAbA 4.100 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

## xra



11>

* Mutiko koadrila batek esan digunez, Merkatu Plaza atzetik Pilar Ikastetxera joateko zubia zuloz beteta dago: "Euria egiten duenean busti egiten gara, eta jende asko erori egiten da". Zuloak konpontzeko eskatzen dute. Beste gazte batek txakurrak kaka egitera zubi honetara eramaten dituzten jabeak salatu nahi ditu: "horren zubi estua izanik, oso zaila da zikinkeria hauek baztertzea. Jabeen jarrera lotsagarria iruditzen zait".




* Gizon batek tontodromoko farolak argirik gabe daudela esan digu: "Jende asko ibiltzen da tontodromoan pasiatzen, eta farolak jarrita daude, baina argirik gabe daudenez, oso ilun egoten da". Gainontzeko farolak pizten direnean, tontodromokoak ere piztea eskatzen du gizonak.



* Jubilatuen Egoitzako direktibak, liburutegira joaterakoan gazte askok jubilatuei bidea oztopatzen dietela azaldu digu: "Askotan motxilak eskilaretan uzten dituzte, eta beraiek ere bertan eserita egoten dira. Egoitzara joaten diren jubilatuei, bidea oztopatuz". Jubilatuen Egoitzako direktibak, errespetu apur bat eskatzen du.





# Txinatik guraso

*Marivi Miquele, 47 urteko emakume elgoibartarra, erizaina da lanbidez eta duela 22 urtetik Bartzelonan bizi da. Juan Carlos Mas kataluiniarrarekin ezkonduta dago eta ia 2 urte pasa dira haur bat adoptatzeko erabakia hartu zutenetik. Espainian haur bat adoptatzeko 7 urte itxaron behar direla ikusirik, soluzioa nazioarteko adopzioa zela ikusi zuten eta Txinarantz luzatu zituzten begirada eta ilusioak. Duela egun batzuk Ana Maria Lan urtebeteko alabatxoa eskuetan zutela agertu zitzaizkigun BARRENeko erredakzioan. Ondorengo lerroak bikote batek familia osatzeko bizi behar izan duen abenturaren kontakizuna duzue irakurgai.*



Gan Yan Lan Txinan jaio zen urtebeteko neskatxaren izena da. Gurasoek abandonatu egin zuten eta umezurtz etxean bizi izan zen harrezkero. Patuak etorkizun iluna gordea zion, baina Carlos Mas eta Marivi Miquele gurutzatu ziren bere bidean. Gaur egun bizimodu berria hasi du jaioterritik urrun. Guraso berriak, pasaporte berria, eta itxaropen berriak, azken finean. "Gan Yan Lan abizenak zituela esan ziguten. Gan bera jaio zen hiritik pasatzen den ibaiagatik. Yan, Yanchi probintziaren txikigarria da eta Lan-ek, berriz, orkidea dotorea esan nahi du txineraz. Lan abizena mantendu eta Ana Maria izena jarri diogu". Txina 1.300 biztanleko herrialde erraldoia da eta gobernu komunistak haur bakarraren politika jarri zuen martxan jaiotze tasa kontrolatzeko. Politika honen erruz umezurtz-etxeak abandonatutako neskatxaz gainezka daude.

UMEZURTZ-ETXE TXINARREN DOKUMENTALA

Zuetako askok gogoratuko duzue Txinako Umezurtz-etxeei buruz Doeumentos-TV telebista saioak bota zuen dokumental gogor eta polemikoa. Tratu txarrak jasaten zituzten haurren irudiek bikote askoren bihotzak hunkitu zituzten eta haur txinarrak adoptatzeko eskariek gora egin zuten. Hau ez da Marivi eta Juan Carlosen kasua izan, besteak beste, ez dutelako dokumentala ikusteko adorerik izan. "Hasieratik gure ideia haur bat adoptatzea zen. Europa ekialdeko herrialdeetan jarri zuten arreta lehendabizi, "Hego Amerika hasieratik baztertu genuen, ustelkeria itzela dagoela abisatu baitziguten". Gure ezaugarriekin 7 herrialdetako haurrak bakarrik adopta genitzakeela konturatu ginen, herrialde askotan 5 urtetik gora ezkonduta izatea eskatzen baitute. Azkenean gure



*Marivi Miquele eta Juan Carlos Mas senar em, txinatarra adoptatu dute. Argazkian Elgoibark4*

ezaugarriekin oso ondo zetorren herrialde bat zegoela konturatu ginen: Txina, alegia. Gainera, Txinan tramite guztiak gardentasunez egingo zirela jakitea garrantzitsua zen guretzat".

**EMOZIONALKI ETA EKONOMIKOKI GOGORRA**

Marivik adopzioarena emozionalki oso prozesu gogorra dela aitortu digu: "Behin espedientea bidali ostean, gauzak ez daude norbere esku. Denak kontrolpetik ihes egiten du eta ezin da jakin zer gertatzen ari den".

Ekonomikoki ere esfortzu handia da haur bat adoptatzea. Espedientea, egokitasun agiria, bidaia... 2 milioi eta 2 milioi eta erdi arteko kostua izan dezake, herrialdearen arabera. Haur bat adoptatzea ez dago edozeinen esku. Dena dela, Ana pozik ikusteak, zituen gaitz eta infekzio guztiak sendatuta, ez dauka preziorik. Hasieran ez zekien parre egiten, ez baitzuen parre egiteko motiborik izan bere bizitza laburrean".

# oibarrera
# berrieKin



*Ina Maria Lan izeneko neskatxa ?,z inguratuta daude Plaza Txikian.*

HEZIKETA

Txinari buruzko kultura eta ohiturak ezagutzeko beharra sortu zitzaiela diote senar-emazteek. Bertara joan ostean gauza asko ulertu omen dituzte: "Gehien txunditu gintuena senar-emazte asko hurbildu zitzaigula izan zen. Emakume asko negarrez hasten ziren, ziurrenik euren haurrak abandonatu beharrean izango baitziren. Bere benetako amak errespetu handia merezi du, badakidalako ez zuela beste erremediorik izan. Berari azalduko diot, herrialde batetako politikaren erruz abandonatua izan zela".

Marivik adopzioari buruzko ideia argia du: "Datorren lekutik datorrela, haur bat norberarena izango balitz moduan maite daiteke. Kosta egiten zait, seme biologiko bat Ana Maria maite dudana baino gehiago maite nezakeela pentsatzeak. Umezurtz etxeak, gainera, adoptatuak izateko beharra duten haurrez beteta daude".

**"Ana Mariak hasieran ez zekien parre egiten, motiborik izan ez zuelako bere blilza laburrean"**

**Marlyi Miquele**



*Mas-Miquele senar emazteek beste 7 bikoterekin egin zuten Txinara bidaia.*



## HAUR TXINATAR BATEN ADOPZIOA

## PAUSOZ. PAUSO

1- Komunitate Autonomoarekin kontaktatu.

"Duela 2 urte egin genuen Generalitatean haurra adoptatzeko eskaria". Legeak baldintzok eskatzen ditu: Aurrekari penalik ez izatea, ekonomikoki egonkorrak izatea eta osasuntsu egotea.

2- Egokitasun agiria lortzea.

Gizarte laguntzaile eta psikologo talde batek, errekurtso ekonomikoak eta batez ere pertsonalak baloratzen ditu. Helburua: Tratu txarrak jasan dituen haur baten ardura hartzeko gaitasuna zehaztea. Abandonatua izan den haur batek tratu txarrak jasan dituela kontsideratzen da. "Garrantzia ematen diote adopzioa ekintza humanitarioa ez izateari, haurrak izateko gogoak bultzatua baizik".

3- Haurraren jatorrizko herrialdeak eskatzen dituen paper eta dokumentu guztiak biltzea.

"1800 gramo pisatzen zuen dossierra bidali genuen: Proba medikoak, Hies-arena, lan errendimentua, ondasunen eta heterosexualitate agiria... Zigilutan 50.000 pta. gastatu genituen. Burokrazia izugarria da, pazientzia eta denbora asko behar dira". Haurraren sexua eta adina eskatzeko aukera ematen du txinatar gobernuak, "10 eta 18 hilabete bitarteko neskatxoa eskatu genuen, ahalik gazteena, bizipen traumatiko gutxiago izango zituelakoan. Norberak argi eduki behar du nolako haurra hezitzeko gai den"

4- Agiriak entregatu eta 6 hilabetera zenbaki bat ematen dute.

"8 hilabete itxaron genuen". Urtean 400 haur txinatar iristen dira Espainiara, hilero 30 eta 60 ume txinatar artean.

5- Haurraren datuak bidaltzen dituzte: Bi argazki eta historial medikoa.

"Ezer gehiago jakin gabe esan behar da haurra nahi den edo ez". Hilabete barru txinatar gobernuaren gonbidapena jaso behar da herrialdean sartzeko eta umea jasotzeko. "15 egun pasa genituen Txinan. Ana Maria jaio zen Yanchi probintziako epailearen aurrean aurkeztu eta galdera mordoa egin zigun: Abandonatzeko asmorik al genuen, nola heziko genuen... negarrez hasi nintzen. Nola abandonatuko nuen bada, horrenbeste ahalegin egiten ari baginen gure alboan izateko". Pekineko enbaxadara joan ziren ondoren, "konpondu beharreko paper guztiak konpondu eta Ana Maria gure abizenak zituela atera zen Txinatik. Pasaportea txinatarra zuen oraindik, baina espainiar lurraldea zapaldu orduko galdu zuen eta Espainiarra eskuratu".

# Euskal Herriko Naziotasun Aitormena sinatzeko bulegoa jarri du Udalbiltzak

## Euskal Herriari herri izaera eta naziotasuna aldarrikatzea dira ekimenaren helburuak

Udalbiltzak hainbat ekintza egin ditu sortu zenetik eta horietako bat da herritarrei Euskal Herriko Naziotasun Aitormena sinatzeko aukera ematea. Horretarako Elgoibarren bulegoa jarri dute Santa Ana Kalean eta bihartik, larunbatetik aurrera, sinatu ahal izango da aitormen hau.

Aurkezpenean azaldu zutenez, agiri hau borondatezkoa da eta ez inposizioz edo obligazioz eraman beharreko karnet bat.




*Ekimenaren aurkezpenean J.M. Arakistain, Pablo Irureta eta Zuhaitz Gurrutxagak babesa eman zioten proiektuari.*

Ekimen honek bi helburu nagusi ditu: Euskal Herriari herri izatea aitortzeko eskubidea bermatzea, naziotasuna aldarrikatzea eta hortaz gozatzea.

Euskal herritar guztiek sinatu ahal izango dute aitormen hau eta horretarako 3 argazki, errolda agiria (Elgoibarko bulegoan herrian jaio eta bizi direnek egin ahal izango dute agiria) eta 12 euro beharko dira. 14 urtetik beherakoek, langabetuek eta ezinduek, berriz, 6 euro. Ordainketa aurrez banketxeetan egin beharko da. Bulegoa Santa Ana kalean dago eta astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 18:30etik 20:30era egongo da irekita; larunbatetan, goizeko 11:30etik 13:30era. Herritarrek lau hilebete izango dituzte agiria eskatzeko. Informazio gehiago bulegoan bertan eta herriko tabernetan jaso ahal izango da.

Lokala bihar, larunbata, goizean zabalduko bada ere, ekimena prentsa aurrean astelehenenan azaldu zuten eta asmo honi babesa emanez eta elgoibartarrak asmo honekin inplikatzeko animatuz, herriko hiru pertsonaia ezagun izan ziren Udalbiltzak jarritako lokalean: J.M. Arakistain, Pablo Irureta eta Zuhaitz Gurrutxaga.

# Elizako lurra konpontzen ari dira jendea ez labaintzeko

## Hezetasunak eta eliztarren joan-etorriak hondatu ditu losak

Urteen poderioz San Bartolome Parrokiako arkupeetako losak hondatu egin dira eta elizako arduradunek konpontzeko erabakia hartu dute. Elizako joan-etorrian dabiltzanen ibilerek eta eguraldi hezeak kaltetu du batez ere lurra. Baina bada hondatzeko beste arrazoirik ere: Azken urteotan gazte asko joaten da larunbat arratsaldetan elizako arkupeetara alkohola edatera eta likidoa botatzen dute bertan. Likido hauek duten azukreak kalte handia egiten die harriei. Beraz, elizara egun hauetan joan direnek arkupeetan makinekin egin dute topo.

### Lurra laztu

Orain arte elizarako bidean jende asko jausi da eta beste hainbatek sustoak hartu ditu. Hori ez gertatzeko apurtutako losak kendu eta berriak ipini dituzte lehenengo eta ondoren, fresatzeko makinarekin lurra laztu, jendea labaindu ez dadin. Hasieran, arazoari beste irtenbide bat ematea erabaki bazuten ere, irtenbidea iraupen gutxikoa izango zenez, fresatu egingo dute. Baliteke behin lanak amaitutakoan elizara joaten direnak lurraren itxura berria ikusita harritzea. Hala ere, labaintzea eragotziko die eliztarrei.



*Apurtutako losak aldatu ostean fresatzeko makinarekin aritu dira lanean arkupeetan.*

## Eusko Alkartasunak egoitza berria du Jausoro Plazan

Lokal berria inauguratu zuen Jausoro plazan joan den larunbatean Eusko Alkartasuna alderdiak. Inaugurazio ekitaldian Begoña Errazti EAko presidentea, Iñaki Galdos EAko Gipuzkoako presidentea eta Miren Arrate Arrieta EAko Elgoibarko zinegotziak egin zituzten beraien hitzaldiak. Hauetaz gain, EAko ordezkariak eta Elgoibarko gainontzeko alderdietako kideak ere izan ziren. Orain arte San Roken izan du egoitza EAk eta Santa Klara auzoko Jausoro Plazan izango dira hemendik aurrera.



## Kultura, euskara eta antzerki munduko aurpegi ezagunak izan ziren Taupadaren jaian

Taupada Antzerki Taldeak bere 25. urteurrena ospatzeko jaia egin zuen joan den ostiralean. Lehendabizi beraien antzezlanen argazkiak, panpinak, arropak... biltzen dituen erakusketa inauguratu zuten, eta ondoren, Toletxe tabernan jaia izan zen. Festan ehun lagunetik goa bildu ziren tartean kultura, euskara eta antzerki munduko aurpegi ezagunak. Baltzola anaien trikiti doinuak, Ibon Arregik eta Ekekeik prestatutako diapositiba emanaldia eta antzezlanik ez zen falta izan. Taupadako kideek Udala, Ekekei, Haritz Dantzari Taldea, Toletxe eta jaian beraiekin izan zirenak eskertu nahi dituzte.



## Udalak obretarako baimenak emateko arauak aldatu ditu

Elgoibarko Udalak obrak egiteko baimenei dagozkien hainbat arau aldatu ditu. Honen arabera, nahikoa izango da obrak egiteko asmoa azalduz udaletxean agiri bat aurkeztea. Ondoren, baiezkoa jaso arte zain egon gabe hasi ahal izango dira lanak. Hala ere, kontuan hartu behar da lanek eraikinaren egituraren zati garrantzitsuenak ez aldatzea. Honela, baimena jaso aurretik egin daitezkeen lanak hauek izango dira besteak beste: Etxea barrutik konpontzea, lurra edo sabaia aldatzea, kanpoko lehio eta ateak aldatzea berezko eraikinaren itxura, koloreak, neurriak eta zimentuak errespetatuz. Ezingo da inola ere balkoirik itxi aurrez baimena eskuratu ez bada. Barruko lehio eta ateak zein komuneko osagaiak ere aldatu daitezke etxean. Bestalde, lanak egiteko erabili behar diren materialen berri ez da eman behar, andamioak jartzerakoan izan ezik.

## Netto supermerkatuak emandako produktuak jarri ditu salgai Misquik

Perurako dirua biltzeko kanpainarekin jarraitzen du Gobernuz Kanpoko Misqui erakundeak. Oraingoan, Netto supermerkatuak borondatez emandako produktuak salgai ipini dituzte prezio merkean gainera. Gemma Agirregomezkortak salduko ditu Plaza Handiko arkupeetan. Aste honetan jarri ditu produktuok salgai lehen aldiz eta arrakasta handia izan duela adierazi digu. Bestalde, Gemmak herritarrei gogorarazi nahi die diru laguntza bonoak salgai daudela 10 edo 50 euroren truke, Iaz diru asko jaso bazuten ere, aurten 1.800 euro baino ez dituzte bildu eta iaz garai honetarako 6000 euro bildu zituzten, beraz, %90 gutxiago.

## Emakumeen Aurkako Mdarkeriarekin Amaitzeko Nazioarteko Eguna izango da azaroaren 25ean

# NOLA JOKATUKO ZENUKE INDARKERIA KASUREN BATEN BERRI IZANGO BAZENU?



### AMAIA IRUSTA

**38 urte, irakaslea**

Ez dakit. Ezaguna bada, laguntzen saiatuko nintzateke. Nora jo dezakeen enteratu, eta berarekin hitz egin. Baina ezagutzen ez badut, ez nintzateke arazo horretan sartuko.

### MARI KRUZ FERNANbilL

**49 urte, etxekoandrea**

Zaila da. Ez zait sekula tokatu, baina nire laguntza guztia eskainiko nioke. Hitz egin, entzun eta aurrera jarraitu nahi badu, salaketa egin.





### ALBERTO MARTIN

**31 urte, kalitate arduraduna**

Erasotzailearen kontra ez nuke ezer egingo, baina neskari lagunduko nioke. Berarekin hitz egin, eta psikologikoki lasaitzen saiatuko nintzateke. Bere bikotea uzteko konbentzituko nuke.

### CELSO BABARRO

**47 urte, erreminta makinako langilea**

Kasua salatzeko esango nioke. Gero eta kasu gehiago dira, eta ez da erraza laguntzea, baina eskatzen didan guztia egingo nuke. Erasotuarekin hitz egin eta aurrera egiten lagunduko nioke.





### ELENA CEREZAL

**28 urte, ingeniari teknikoa**

Salaketa jartzeko esango nioke, eta nahi ez balu, agian nik neuk salatuko nuke kasua. Behar duen guztia ematen saiatuko nintzateke.

### JAVIER RODRIGUEZ

**31 urte, espezialista**

Laguntza eskatzen badit, psikologikoki lagunduko nioke. Berarekin hitz egin, eta bikotea ezagutuko banu, berarekin ere hitz egingo nuke. Laguntzarik eskatuko ez balit, ez nioke ezer esango.



le14 4 0.104 c,,V. Com.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2• Tel: 943 74 00 15

# nola ALDATU diren gauzak!




**1925.** urteko erretratua dugu hau. Urte askoan estazioko nagusia izan zen Carlos Gonzalezek laga digu argazkia. Elgoibarko tren geltokia ikusten dugu bertan. Argazkian ageri den moduan, garai hartan ere tren dotoreak zeuden. Ke beltz mordoa botatzen zuen baporezko trena azaltzen da erretratu honetan. Makina indartsua zela esan dezakegu, bagoi ugari baititu atzean. Estazioko nagusia ere, oso dotore ikusten dugu, trenari irteera ematen. Garai hartan, geltokiko etxean bizi zen estazioko nagusia, eta etxe hau denbora luzean mantendu zen argazkian ikusten dugun moduan. Etxe aurrean merkantzia garraiatzeko karroak ageri dira. Garai hartan honelako karroak erabiltzen ziren kargak trenera sartzeko.

**2002.** urteko argazki honetan, gaur egungo tren geltokia ikusten dugu, eta gauzak asko aldatu dira ingurune honetan. Gaur egun, trena, jendeak bidaiatzeko erabiltzen da batez ere, eta merkantziak tren berezietan eramaten dituzte. Argazkian ikusten den moduan, teknologiak aurrera egin du, eta tren modernoagoak ditugu. Geltokiaren estruktura ez da asko aldatu. Bigarren andenean markesina berri bat eraiki dute, baina bestela, oso antzera mantentzen da tren geltokia. Ingurunea bestalde, asko aldatu da. "Karakola" esaten dioten zubi modernoa ikusten dugu argazkiaren atzeko aldean, eta jende askoren bizilekua den etxebizitza ugari eraiki dituzte bertan.

Juanito Gorostiza







2002ko GIDA

BaRR n

Azkenengo gidan agertu ez bazinen edo zure negozioko telefonoa edo helbidea aldatu bada,

**deitu 943 74 37 04 telefonora**

# Graduondoko diplomak banatu zituzten joan zen ostiralean Gestio Eskolan

## 250 ordu iraun ditu Zuzendaritza Orokorreko Goi-mailako ikastaroak



Gestio Eskolak Madrilgo ESCP-EAP negozio eskolarekin elkarlanean, Zuzendaritza Orokorreko Goi-mailako ikastaroa antolatu zuen. Enpresa munduko jendeari zuzendutako ikastaro honetan, enpresa desberdinetako 23 pertsonek hartu dute parte. Zuzendari arduretan dabiltzanei, edo zuzendari izan nahi dutenei zuzendutako ikastaroa izan da. Graduondoko ikastaro honen helburu nagusia, Management-aren zentzu zabal eta aurreratuaren kontzeptu, teknika eta tresnak erabiltzen ikastea izan da. Enpresaren egitura funtzionala bere osotasun dinamikoan ulertzea, analisi diagnostiko eta erabakiak hartzeko gaitasunak modu sistematiko batean landuz. Azken finean, dibertsifikazioak edo merkatu berrietan ezartzeak dakartzan aldaketa prozesu sakonei aurre egingo dieten zuzendariak prestatzen saiatu dira. 250 orduko iraupena izan du ikastaroak, eta bukaeran hobekuntza proiektu enpresarial bat egin behar izan dute.



## Azaroaren 3an mendi ibilaldia egin zuten Azpeitin Herri Eskolakoek

Finalista eguna zela aprobetxatuz, 2 ordu inguruko ibilaldia egin zuten Xoxote mendiaren magalean. Herri Eskolako mendi taldeak antolaturik, 40 lagun inguru joan ziren Elgoibartik, eta herri desberdinetako milaka ume elkartu ziren bertan. Ibilaldia amaitu ostean, urteko dominak banatu zituzten Azpeitiko plazan. Herri Eskolako mendi taldeak, hilero irteera bat egingo du. Hurrengoa, datorren azaroaren 24an izango da. Aittolatik Erlora joango dira. Goizeko 9:00etan aterako dira Plaza Handitik, eta eguerdiko 14:30ak aldera itzuliko dira.

## ESKOLA KIROLA

### AGENDA

Azaroak 23, larunbata

ATLEIBM0A, NimIxetan

10:00 Atletismoa

**10:45** Atletismoa

**11:30** Atletismoa

**12:15** Atletismoa

## Joan zen igandean, hilak 17, Ikastolakoak Ernion izan ziren

Ikastolako guraso taldeak antolatutako, 45 lagun inguru Ernion (1072m) izan ziren joan zen igandean. Iturburu (Errezil) gainetik irten, eta Ernio puntaraino igo ziren. Giro oso ona egin zuen arren, mendi tontorrean hotz handia egiten zuela azaldu digute. Datorren aste bukaeran, Santa Eufeniara joango dira.



cts

euskaltegi arigera

Elgoibarko HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEARI

# Amaitu da Arigera proiektuaren lehenengo fasea

## Euskororen tronsmisioa izongo do 2. Fosearen ordotzo



Bukatu da dagoeneko Arigeraren lehenengo fasea, eta bigarrenari ekitera doaz proiektua osatzen duten lau erakundeak, eta transmisioa tzango da arclab nagusia. Batek baino gehiagok somatu du jadanik euskararen historian familiak izan duen eragina, eta, era berean, Euskal Herriko familietan euskarak izan duen garrantzia. Harreman estu hori egoera eta garai zehatz batzutan ezinbestekoa suertatu izan da historian zehar, guda ostean edo frankismo garaian esaterako. Hori dela eta, familia eta hizkuntzaren arteko lotura, sarritan aipatu eta ikertu izan da.

Familiak hizkuntzaren transmisioan duen oinarrizko papera funtsezkoa da gaur egun. Eskolarekin batera, familia arduratu ohi da gizabanakoen hezkunr7a7, eta bere eskuetan gelditzen da gizarteratze prozesua haurra jaiotzen den momentutik. Orduan hasten da jasotzen hizkuntza, kultura, gizarte-baloreak, arau sozialak... Beraz, haurra munduratzen den unetik hasten dira gurasoak haur horren heziketa diseinatzen, egituratzen eta erabakitzen.

Gurasoak askotan jabetzen ez badira ere, haurrart zuzenean hitz egin ez arren, haurra hizkuntza batean bameratzen da ingurunearen eraginez. Haurrak ingunінean biltzen diren balore kultural, afektilx) eta smialak jasoko ditu.

Arigeraren bigarren fase honen helburua, guraso horien jarreran eragitea da, batez ere. Batetik konfiantza hartzea lortu nahi dute, eta bestetik, eskolak atsegtnak direla sentiaraziz, beren hizkuntza gaitasuna erabileraren bitartez hobetu dezaketela ikustarazten saiatuko dira.

Datorren urtarriletik aurrera hasiko da Arigera proiektu honekin, eta bidezkoa ikusten bada. ondorengo hiru uneetan.jarrattuko dute lanean.



### AGUR EUSKALTEGIEN GEHIGARRIARI!

2000ko irailean hasi ginen *Euskaltegietan Arigera* gehigarriarekin. Eta, badakizue, hasiera guztiek izaten dute amaiera. Eta guri ere iritsi zaigu agur esateko ordua, hauxe izango da euskaltegiei eskainitako azken gehigarria. Gehigarri honen nahia euskaltegietako mundua bistaratzea eta nabarmentzea izan da. Izan ere, eta gure uste apalean, euskara ikasleen mundua nahiko ezkutuan egon da. Egiten diharduten esfortzua bistaratzea merezi duela begitantzen zaigulako hasi ginen gehigarri berezi honekin. Eta lortu al dugu? Den-dena, akaso, ez genuen bistaratuko, baina euskaltegiak eta bertako jarduna lehen baino hobeto ikusten direlakoan gaude. Besteak beste, hemen izan ditugu dozenaka euskara ikasle; egin behar izaten duten esfortzuaren berri eman dugu; euskara ikasteko prozesuko gorabeherak erakutsi dizkizuegu; azken finean, euskaltegietako ateak zabaldu eta bertan zer dagoen erakusten saiatu gara.
Baina agur esan aurretik, ESKERRIK ASKO esan nahi dizuegu gehigarri hau egiten lagundu diguzuen euskara-ikasle, irakasle eta euskaldun zahar guztioi. Eta, amaitzeko, euskara ikasten ari zaretenoi, animo eta segi horrela, merezi du-eta!

**AMAIA ARRIZABALAGA**
**ARIGERAko teknikaria**

# HELDUEN EUSKAIDUNTZE-Ali

## Euskara ikastea ez dago modan

zken aldian lau haizetara zabaldu da urtetik urtera euskaltegietan jasaten ari garen egoera. "Gero eta heldu gutxiago dira euskara ikasteko nahia azaltzen dutenak".

Zergatik ote?

Arrazoiak aztertzen hasiz gero, ez genukebakar bat topatuko, ederki asko baitakigu honetan faktore askok dutela eragina.

Alde batetik, esan genezake euskara ikastea ez dagoela modan eta zoritxarrez badakigu bizi garen gizarte honetan modak eragin handia duela gizakiongan. Bestetik, bizi dugun egoera politikoak ere, ez digu mesederik egiten; izan ere, zertarako euskara ikasi goi-esferatik hizkuntza hau gutxiesten denean?

Arrazoiak arrazoi, une honetan euskaltegietara euskara ikastera hurbiltzen diren helduak, (gehienetan) euren lantokian eskatzen zaien hizkuntza eskakizuna ateratzeko asmoz etortzen dira. Atzean geratu dira garai batean motihazio integratzaileak eraginda etortzen zirenak. Ikasle mota hori apenas ikusten dugu gaur egun.

Administrazioan eta Hezkuntzan (ez beti) izan ezik, euskara ez da beharrezkoa, eta gauzak horrela, Administrazioaren aldetik ez da euskararen irakaskuntza behar bezala sustatu, hada, azken _urteotan ez ditu diru-laguntzak igo, bizimodua, soldatak eta ahar igo diren neurrian. Gainera, politika honek euskaltegietako matrikula-kostua etengabe igoarazi du.



*Itziar Agirregomezkorta eta Izaskun Belategi, Udal Euskaltegiko eta AEK Euskaltegiko zuzenclariak.*

Ez da gauza bera gertatzen, esaterako, espainiera ikasi edo alfabetatu nahi duten ikasleekin; izan ere, kasu honetan, doan ikasteko aukera daukate EPAren bitartez. Beraz, EAEn euskara ofiziala baldin hada, zergatik ez euskara doan ikasi?

Uste dugu badela garaia euskararen irakaskuntzari merezi duen duintasuna emateko eta honetan, Administrazioak zeregin handia dauka. Hizkuntza Politika egokia diseinatu beharra dago eta benetako borondatea erakutsi hau indarrean jar dadin. Hizkuntza Politika honek hateratzaile eta globala beharko luke izan, erabilera, motibazioa eta sektorearen normalizazioa oinarrizko ardatz harturik.

# GALDECWale

## Zergatik animatzen da gero eta jende gi



**JOSU ARTETXE**
**35 urte, torneroa**

Ez dakit zergatik izango den, beharbada denbora falta izango da. Egun guztia lanean aritu ostean, jendeak ez dauka ikastera joateko gogorik. Normalean beste gauza batzuk egitea nahiago dute.



**AGURTZANE BASTIDA**
**40 urte, garbitzailea**

Ez dakit. Hainbeste urtere ostean, nire senarra aurte hasi da euskara ikaster Ikasteko sekula ez da be randu, animatzea da kor tua. Denbora faltarena a: tzakia bat da. Benetan gc goa edukiez gero, denbor ateratzen da.

2002-IV-22

# ABETATZER KRISIAN?

## Informazioa eta datuak: Elgoibarkoak eta Euskal Herrikoak

Azken urteotan helduen euskalduntzean ez da aurrerapen handirik izan. Euskaltegietako matrikulazio datuek azaltzen duten bezala, gero eta heldu gutxiago ari da euskara ikasten. HABEk argitaratutako azken datuen arabera, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako euskaltegietan beheranzko joera nabarmena izan da azken urteotan. 1996an, hiru herrialde hauetan 46.126 ikasle zeuden, eta iaz 37.780. Aurtengo datu zehatzik ez goen arren, behin-behineko datuek, ikasle kopuruak berriro ere behera egin dutela erakusten dute.

Elgoibarko euskaltegiak ere, ez dira libratu, eta azken ikasturte hauetan, ikasle kopuruak behera egin du. Azken urteotako datuei erreparatzen badiegu, joera beheranzkoa izan dela esan daiteke. 95-96 ikasturtean 194 ikaslek eman zuten izena. Ondorengo urteetan matrikulazioak gutxitu egin ziren, hala ere, 99-00 eta 00-01 ikasturteetan ikasle kopuruak gora egin zuen Elgoibarko euskaltegietan. 98-99an 148 ikaslek eman bazuten izena, hurrengo bi urteetan 177ra igo ziren matrikulazioak. Hura izan zen azken gorakada, eta taulan ikusten den moduan, ordutik euskaltegietako ikasle kopurua gutxituz joan da. Aurten, 120 ikaslek eman dute izena AEK eta Udal Euskaltegian.

| | 95-96 | 96-97 | 97-98 | 98-99 | 99-00 | 00-01 | 001-02 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ELGOIBAR | 194 | 165 | 136 | 148 | 167 | 177 | 153 |
| ARABA | 6496 | 6529 | 6599 | 6685 | 6958 | 6342 | 6110 |
| BIZKAIA | 24760 | 23960 | 23586 | 23316 | 23080 | 20303 | 18887 |
| GIPUZKOA | 14386 | 14064 | 12444 | 12390 | 12480 | 11066 | 9920 |
| NAFARROA | 6042 | 6203 | 6765 | 6313 | 5363 | 4989 | 4350 |
| IPARRALDEA | 916 | 1010 | 1207 | 1165 | 1000 | 998 | 933 |
| *EUSKAL HERRIA* | *52600* | *51766* | *50601* | *49869* | *48881* | *43698* | *40200* |







## ciago euskaltegietara?



**MARI LOZANO**
26 urte, langabetua

Adin kontua izan daiteke. Jendea lanean hasten denean, ikasketak alde batera uzten ditu, eta ez daukate ezer ikasteko gogorik. Gainera, egun osoa lanean pasatu ostean, euskaltegira joatea asko kostatzen da.



**AGUST1N SORALUZE**
**31** urte, elektrikaria

Jendeak ingelesa ikasten du, euskara hobetu beharrean. Euskaltegiak erdaldunentzat direla pentsatzen dute, eta euskaldunek ere askotan izaten dute aditzak edo deklinabidea ikasteko beharra. Hizkuntzak ikastea ez da sekula amaitzen.

# TERTUILIAK MARTXFIN

*Ana Igartua eta Mikel Merino terlulielako bi partaide dira, bata euskaldun zaharra eta bestea euskaldun berria. Mikel euskara ikasten ari da, eta aurten hasi da tertulietara joaten. Ana euskalduna izanik, ideia bikaina iruditu zitzaion euskaldun berriei euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzea, eta aurten ere parte hartuko du tertulietan. Gaurkoan gurera ekarri ditugu beren esperientzia kontatzeko.*



"Ahal dudan bitartean euskara ikasten jarraituko dut"



"Tertulietan parte hartzen duten euskaldun berriek meritu handia daukate"

**Ano Igortuo**
Euskoldun zahorro

Nolatan animatu zinen?

**Euskara ikastera sekula ez naiz animatu, eta tertuliena irakurri nuenean, euskararen alde zerbait egin beharko nukeela pentsatu nuen.**

Zer nolako esperientzia izan zen?

**Oso positiboa. Talde ona izan genuen, eta oso gustura egon gara.**

I Zeri buruz hitz egiten zenuten?

**Denetarik. Hasieran bakoitza zergatik hasi zen euskara ikasten, eta bere bizitzari buruzko aurkezpena egin genuen. Handik aurrera, betiko lagunak izango bagina bezala, eguneroko gaieri buruz hitz egiten genuen.**

Zertan daukate euskaldun berriek zailtasun handiena?

**Lotsa handia daukate. Beraien ingurunea ez da euskalduna, eta ez daude euskaraz hitz egiten ohituta. Hizkuntza ez dute dominatzen, eta euren buruarekiko segurtasun falta nabari zaie.**

Zer aportatu diezu?

**Euskaraz hitz egiteko konfiantza, eta eurentzat ere laguna naiz.**

Zer egin daiteke jendea euskara ikastera animatzeko?

**Hori norberarengandik atera behar da. Ezin da inor derrigortu. Tertulietan parte hartzen dutenek meritu handia daukate. Derrigortu gabe ematen dute izena, eta izugarri saiatzen dira.**

**Mikel Merino**
Euskoro tkosleo

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

**Duela bederatzi urte. Gero bi urtez utzi egin nuen, eta orain berriro hasi naiz. "Gurean bai" merkataritza proiektua aurkeztu zidaten, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan, beraz, nire euskara maila hobetu behar nuela erabaki nuen.**

Nolatan eman duzu tertulietan parte hartzeko izena?

**Euskara ikasteko garrantzitsua da mintzamena praktikatzea. Teoria ikastea oso beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Euskaldun berri guztiek hartu beharko lukete parte tertulietan.**

Hasi al zara tertulietan?

**Joan zen astean izan genuen lehenengo tertulia. Bi euskaldun berri eta hiru euskaldun zahar gaude taldean. Oso gustura egon ginen. Bakoitzak bere gauzak kontatu eta besteenak entzun genituen.**

I Zer da gehien kostatzen zaizuna?

**Euskara entzutea kostatzen zait gehien. Nire bizi giroa ez da euskalduna, eta ez dut gehiegi praktikatzen. Dendan beti irratsaio euskaldunak entzuten ditut, entzumena ohitzeko.**

Zer lortzea nahiko zenuke?

**Euskara ondo ikastea gustatuko litzaidake. Lanean eta eguneroko bizitzan euskaraz hitz egiteko gai izatea. Ahal dudan bitartean euskara ikasten jarraituko dut.**

I Zer egin daiteke jendea euskara ikastera animatzeko?

**Gaur egun lan gehienetan eskatzen dute euskaraz jakitea, eta hemen bizitzeko garrantzitsua da. Lotsak alde batera utzi, eta euskaltegian izena ematea da pausu zailena.**

## 27 euskaldun berri tertulietan



**Iazko arrakasta ikusita, aurten ere tertuliak martxan jarri ditugu. Astean behin, euskaldun zaharrak eta berriak elkartzea da egitasmoaren helburua, talde txikietan hilduta, ordubetez euskaraz hitz egiteko. Euskaltegietako ikasle askok. beraien eguneroko bizitzan ez daukate euskaraz hitz egiteko aukerarik, beraz, tertulia hauetan mintzamena lantzeko aukera daukate. Joan zen ikasturtean. 25 euskaldun berri eta 15 euskaldun zahar aritu ziren tertulietan. Euskaraz hitz egiteko lotsa eta beldurra galtzeaz gain, Jagun herriak egin zituzten. Aipatzekoa da iaz ibili ziren ia guztiek eman dutela izena aurten ere, eta ikasle berriren hat ere badago. 27 euskaldun berri ditugu aurten. eta euskaldun zaharrak 12 dira. Denen artean 12 talde desberdin osatuko dira. Tertulietan parte hartu nahi duzuenok, oraindik ere izena emateko aukera daukazue, Euskaltegietan edo Elgoibarko Izarran (943 74 1(i 26).**

# informazioa

## Farmazia okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 22 | Zabaleta | Zabaleta |
| 23 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| **24** | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 25 | Ibañez | Ibañez |
| 26 | Bidasolo | Bidasolo |
| 27 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 28 | Fernandez | Fernandez |
| 29 | Yudego | Yudego |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
**FERNANDEZ,**
Herriko **enparantza 4,** Garagarza.
Tel: **943 75 61 42**
**ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.**
Tel: **943 75 13 84**
*eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**
**24 igandea Idarraga**

## EuskoTren

**DONOSTIA-BILBO**
**Egunero**
**Donostia,e1ARA 5.45 06.45...** 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

**BILBO-DONOSTIA**
**Egunero**
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

## EuskoTren

**MENDARO-ELGOIBAR**
**Egunero**
**Mendaro** 07.50 08.50... 21.50

**ELGOIBAR-MENDARO**
**Astegunetan**
**Elgoibar** 07.25 08.25 10.25... 21.25

**Jaiegunetan**
**Elgoibar** **08.25** 09.25 10.25... 21.25

## PES,AUTOBUSAK

**LARUNBAT GAUA**

**EIBAR-ONDARROA**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 0255 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

**ONDARROA-EIBAR**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

*Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210.*

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

Anbulatorioa ............ 943 03 26 10
Planning-a ............ 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak ............ 943 74 03 85
D Y.A (anbulantzia) ............ 943 46 46 22
Gurutze Gorria ............ 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea ............ 943 03 28 00
Odol Emaileak ............ 943 74 39 36

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak ............ 902 54 32 10
PESA (Eibar) ............ 902 10 12 10
Taxi geltokia ............ 943 74 08 98

**UDALA**

Euskara Zerbitzua ............ 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua ............ 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ............ 943 74 21 58
Mendaroko Udala ............ 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua.. ............ 943 74 10 08
Udaletxea ............ 943 74 10 50
Udaltzaingoa ............ 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ............ 943 74 16 26
Kiroldegia ............ 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ............ 943 74 30 88
Liburutegia ............ 943 74 35 25
Musika Eskola ............ 943 74 21 45
Mi ntxeta ............ 943 74 43 15
Parrokia ............ 943 74 08 42
Postetxea ............ 943 74 15 47
Gaztetxea ............ 943 74 35 72

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola ............ 943 74 21 41
HHI (EPA) ............ 943 74 08 80
Herri Eskola ............ 943 74 08 79
I.M.H ............ 943 74 41 32
I nstitutua
Arreiturre ............ 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) ............ 943 74 80 19
Ikastola ............ 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea ............ 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN ............ 943 74 41 12
El Diario Vasco ............ 943 74 40 73
El Correo Español ............ 943 74 10 82
Zazpiki irratia ............ 943 74 34 74
Egunkaria ............ 943 30 02 22
Gara ............ 943 31 69 99


M a l a p e

e 11 41
1111115Q@Gja111@25
eg uner o 7:00etan
i rekitzen dugu
San Frantzisko, 6 0
teI.943741943
-ina
E 4. 1#15 43

AnchUstegui
Sanyfer
ZERAMIKAK
ETA ETXERAKO
TRESNERIA
Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 **74 33 44 -** 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

2002-XI-22



**JUDIT MURCIA**

**IT)(AROPENA ABESBATZAko zuzendaria**

# endeak ez cou(a Koruko musikarako zaletasunikll

*Santa Zezilia Eguna* **da** *gaur, musikarien zaindariarena, hain zuzen ere. Itxaropena abesbatzak kontzertua eskainiko du udaletxeko arkupeetan. Abesbatzako kideek zuzendari berria izango dute emanaldian: Judit Murcia. Silvia Hernandez ordezkatuz arituko* **da** *abesbatza zuzentzen. Astelehenean Jubilatuen Biltokian egindako saioan izan zen korua zuzendu zuen estreinako aldia, eta oraingoa, berriz, bigarrena.*

**• Nolatan hasi zara zuzendari lanetan Itxaropena abesbatzan?**

Orain dela 7 urte hasi nintzen koruan. Gainera, abesbatzak zuzentzen ikasteko ikastaroak egiten ari naiz. Oraingo zuzendariak Silvia Hernandezek kontzertu hauetan zuzendari lana egin ezin duenez, niri proposatu zidan. Joan den asteleheneko emanaldia eta gaurkoa, bakarrik zuzenduko ditut.

**• Ikastaro bereziak egiten ari zara, beraz.**

Urtean bi aldiz elkartzen gara, uztailean eta abenduan eta koruak zuzentzen irakasten digute: posturak, keinuak, ahots-teknika... Orain, gure abesbatzan ere, hilean bi aldiz ahotsa lantzeko ariketak egiten ditugu irakasle aditu batekin.

> "Kolokan ikusten dugu abes batzaren etorkizuna"

**• Itxaropena abesbatzak zein motako abestiak kantatzen ditu?**

Gazteontzako abesti asko ez dago baina denetariko abestiak kantatzen ahalegintzen gara: Habanerak, pelikuletako soinu bandak, abesti erlijiosoak...

**• Nolakoa da zuen entzulea?**

Santa Zezilia Eguneko kontzertua kalean izaten denez denetariko jendea inguratzen da entzutera. Baina gainontzeko kontzertuetara familiakoak, lagunak eta jende nagusia etortzen da.

**• Abesbatzako gazteenen artean agonik ez al dizu errespeturik ematen zu baino nagusiagoak zuzenizeak?**

19 eta 60 urte arteko jendea gaude. Zazpi urte dira koruan nabilela, jendea ezagutzen dut, tratu ona dago gure artean, eta ez daukat arazorik beraiek zuzentzeko. Gainera, entsaio orokorrez gain, ahots bakoitzari dagozkionak ere egiten ditugu eta ni gizonezkoei irakasten aritzen naiz.

**• Zer behar da abesbatza batean kantatzeko?**

Atentzioa jartzea, entsaiatzeko gogoa eta kantatzeko nahia.

**• Eta zuzendari ona izateko?**

Partituran jartzen duena koruari komunikatzen jakin behar da, gero beraiek jendeari transmititzeko.

**• 10 urte bete dira Itxaropena sortu zela. Itxaropentsu jarraitzen al duzue?**

10 urte hauetan progresioa egon da. Hau da, bakoitzak gauza asko ikasi ditu. Bestalde, partitura ezberdin asko lantzen ditugu orain. Izan ere, hasieran, Itxaropena Parrokiako korutik sortu zenez abesti erlijioso asko kantatzen genuen. Arazo bakarra jende gaztearen falta da eta abendura arte jarraituko dugun arren gerora zer gertatuko den ez dakigu. Deialdi bat egin nahi dugu jendea gurekin kantatzera etortzeko. Niri edozein musika abestea gustatzen zait, baina jendeak ez dauka koruko musikarako zaletasunik. Beraz, oso zaila da jendea erakartzea eta kolokan ikusten dugu abesbatzaren etorkizuna.





*Inazio Bereziartua 1923. urtea.*
*Bandako zuzendari moduan dagoen argazki bakarrean.*

# Inazio Bereziartuari eskainiko dio Santa Zeziliako kontzertua Musika Bandak

## Duela 100 urte iritsi zen Inazio Bereziartua lehenengoz Elgoibarrera

Vatorren *azaroaren 24an* musika *ekitaldi ciesbelomak izango ana* Santa Zezilia eguna ospatzeko. Goizeko 9:45ean Udal Musika Bandaren kalejira izango da, eta eguerdiko 12:30ean kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Ondoren, bazkaria izango dute Karakate Elkartean. Inazio Bereziartua musikaria duela 100 urte iritsi zen Ataundik Elgoibarrera, eta berari eskainiko diote kontzertua.

### HISTORIA LABURRA

Inazio Bereziartuak berehala hartu zuen Elgoibarko musika bandaren zuzendaritza, eta ordutik aurrera, gure herriko musika kontuen adierazgarri izan da. 1nstrumentu berriak erosi zituen Udalaren laguntzaz, eta musikari kopurua poliki-poliki handituz joan zen. 1903. urtean 25 musikarik osatzen zuten musika banda.

Urteak aurrera joan ahala, inguruko herrietara irtetzen hasi ziren emanaldiak ematera. 1916. urteko irailaren 26an Donostian izan ziren Musika Banden topagunean. Eguerdian hiriburuko toki desberdinetan jo zuten, eta arratsaldean "Chofre" zezen plazan elkartu ziren denak. Hala ere, Boulevard-eko dantzaldia eskaintzea izaten zen garrantzitsuena, baina hori banda bakarraren pribilegioa zen. Beraz, Boulevard-eko kioskora lehenengoa iristen zenak joko zuen. Zezenplazan, "Gernikako Arbola" abestiaren azken nota entzun bezain laster, musikari guztiak korrika abiatu ziren Boulevard-era, eta Canuto Gabilondo izan zen azkarrena. Baxu eta guzti, bera iritsi zen lehena, eta Elgoibarko Bandak dantzaldi bikaina eskaini zuen.

Gerratea iritsi zenean, jende gutxi gelditu zen Musika Bandan, eta ahal zuten moduan jarraitu zuen. Gerra amaitu zenean, Inazio Bereziartuak Bandako zuzendaritza utzi zuen.

**KONUERTUKO EGITARAUA**

| | | |
|---|---|---|
| Cardiff Castle | Martxa | J.Powell |
| Two Slavonic Dances | Dantza Eslaboak | A. Dvorak |
| Mission Impossible | TBko telesailekoa | L. Schifrin |
| Plantillerito | D. B. Gorrotxategiri eskainitako pasodoblea | I. Bereziartua |
| La Marchenera | Preludioa | M. Torroba |
| Ben-Hur | Kuadriga desfilea | M. Rozsa |




*Don Bartolome Gorrotxategik "Plantillerito" bereak eta bi ikusi zituen zezenaren aurrean.*

### "PLANTILLERITO" PASODOBLEA

Elgoibarko Musika Bandak eskainiko duen Santa Zeziliaren omenezko kontzertuko egitarauan ikusten den bezala, Plantillerito pasodoblea Don Bartolome Gorrotxategi Agirreri eskainita dago. Grabatuen plantilak egiten zituen, eta hortik zetorkion "Plantillerito" ezizena.

Gazte-gaztetatik zezenetarako zaletasuna izan zuen. Ikuskizun benefiko eta komikoetan parte hartzen hasi zen, baina denbora aurrera joan ahala, izen handia hartu zuen, eta jai serioetatik ere deitzen zioten: Eibar, Deba eta Lekeitioko jaietan toreatu zuen, besteak beste. Aurrerago, garaiko hainbat torero famaturen banderileroa izan zen. 60 urte zituela hil zen Elgoibarren.

# Susok irabazi du partaidetza errekorra hautsi duen IX. Karakatera Igoera

## Sei aldiz irabazi du proba eta errekorraren jabe da






*Goiko argazkian, Karakatera igoeran parte hartu zuten korrikalari gehienak sari banaketa ostean.*

Aurten ere amaiera larria izan zuen Karakatera Igoeraren 9. edizioak. Iaz Gontzal Cuadrado gernikarra eta Jose Mari Fernandez Suso izan baziren tontorrera batera iritsi zirenak, aurten Unai Bengoa eibartarra izan da Suso estu hartu duena. Elgoibartarrak 32 minutu eta 4 segundu behar izan zituen Plaza Handitik Karakateko tontorrera dagoen bidea egiteko. Bengoa eta bera batera ailegatu ziren antena pareraino, baina azken esfortzuari esker 4 segunduko aldea atera zion irabazleak bigarren sailkatuari. Iritsi bezain laster eta egindako ahalegin izugarritik errekuperatu gabe, datorren urtea izango dela parte hartzen duen azken aldia aipatu zuen Susok. Honakoa lortu duen 6. garaipena izan da eta errekorra ere bere esku dago (29'43''). Lehen emakumea, eta parte hartu zuen bakarra, Rosa lasagabaster eskoriatzarra izan zen. Pilar Arriola elgoibartarrak ezin izan zuen irteera hartu lan kontuegatik eta norgehiagoka polita ikusteke geratu ziren ikusleak.

### Partaidetza errekorra

Aurtengo igoerak inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ditu. Guztira 20 lagun ausartu ziren irteera hartzera, tartean emakume bakarra. Iaz, esaterako, 12 partaide izan ziren. Karakate goian ere ikusle mordoa elkartu zen parte hartzaile saiatuak animatzeko. Eguraldi eguzkitsua egin arren haize hotzak jotzen zuen goialdean, baina korrikalariek igarri ere ez zuten egin.

### a. I 1-ca. p e n

| Izena | Denbora |
|---|---|
| 1. Jose Mari Suso | 32'04" |
| 2. Unai Bengoa | 32'08" |
| 3. Gorka Agirreazaldegi | 35'37" |
| 4. Asier Arrieta | 35'46" |
| 5. Xabier Bergaretxe | 35'59" |
| 6. Sabin Zenarruzabeitia | 36'22" |
| 7. Jabier Torquemada | 36'34" |
| 8. Iñaki Konde | 36'42" |
| 9. Xabier Olibeira | 37'45" |
| 10. Igor Rey | 37'56" |
| 11. Jose Jabier Urain | 38'26" |
| 12. Iker Osoro | 38'34" |
| 13. Roberto Osoro | 38'56" |
| 14. Jabi Fernandez de la Lama | 39'07" |
| 15. Igor Mugerza | 41'18" |
| 16. Juan Fernandez | 42'05" |
| 17. Rosa Lasagabaster | 42'14" |
| 18. Ignacio Perez | 44'44" |
| 19. Antonio Fernandez | 49'18" |
| 20. Asier Lasa | 49'20" |

2002-XI-22

# 2002-2003 areto futbol denboraldia

## San Pedro F.S. Elgoibar Klubeko taldeen aurkezpena

### LANBROA (Gipuzkoako 1. maila)



Tente, ezkerretik eskumara: Jose Luis Toledano (Entrenatzailea), David Garrido, Sergio Fernandez, Carlos Diaz, Joseba Rojo eta Jose Luis Gonzalez (Entrenatzailea).
Makurtuta, ezkerretik hasita: Alberto Pampin, Marcos Rodriguez, Jon Mekolalde eta Ivan Quintas.
Argazkian falta dira: Asier Lorenzo, Oscar Zorrilla, David eta Miguel.

### LOJANTZI (Juhenilak)

Zutik, ezkerretik eskumara: Hector Garrido (2. entrenatzailea), Erik Vigara, Aitor Gabilondo, Javier Ausin, Gorka Panizo eta Mikel Leon (entrenatzailea).
Makurtuta, ezkerretik hasita: Fran Morales, Gozeba Gonzalez, Jonathan Velazquez, Victor Murcia, Oscar Cordon eta Julen Merino.
Argazkian falta dira: David Bao, Aitzol Gonzalez, Julen Esnaola, Zelai Garcia, Oier Rubio, Dani Torres, Andoni Gonzalez, Xabier Gil eta Aitor Oteiza.




## 2B elgoibartarrek Nafarroako Bardeak bisitatu zituzten

Argazkian ikus dezakezuen lagun koadrilak asteburu bat pasa zuen duela aste batzuk Bardeetan (Nafarroa). Herri Gain soziedadearen inguruan ezagutzen dute elkar elgoibartarrok. Las Argedas herrian egin zuten lo, eta hainbat ibilaldi egin zituzten asteburuan zehar Bardeetako paisaia harrigarriaz gozatuz. Ilargian baleude bezala sentitzen zirela Bardeetan aipatu digute eta paisaiaren kontraste eta koloreek erakarri zutela beraien atentzioa gaineratu. Igande goizean Lodosa bisitatu ostean gustura itzuli ziren etxera eta jadanik hasiak dira hurrengo irteeran pentsatzen.



## EMAITZAK

### Futbola

Elgoibar 2 — Orioko 3 (Jub.)
Elgoibar 1 — Zumaiako 1 (1. erreg.)
Elgoibar 0 — Aurrera Ondarroa 3 (Kad.)
Anaitasuna 1 — Haundi 0 (Pret.)
Tolosa 0 – Elgoibar 0 (Inf.)
Ilintxa 0 – Elgoibar 5 (Neskak)

### Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa
Errazkin/Irureta 22
Ansola/Balzola 19 (Lagunak)

Arrieta/Irazustabarrena 2
Ulazia/Iriondo 22 (Lagunak)

Portu/Txurruka 3(Lagunak)
Iribar/Iribar 22

Lagunak (1) 18
Lagunak (2) 7 (Inf.)

### Eskubaloia

Sanlo Elg. 26 — Salesianos 11 (Sen. nesk.)
Tecnifuelle 20 — Escolapios 22 (Sen. mut.)
Pagoaga Elg. 13 — Zarauz 13 (Kad. nesk.)
Cometel Elg. 12 – Zarauz 24 (Jub. nesk.)
Zarauz 21 — Pneumax Elg. 19 (Jub. mut.)
Zarauz 34 — Tecnomeca Elg. 25 (Kad. mut.)
CAF Beasain 17 — Gaur Elg. 31 (Jub. mut.)

### Areto Futbola

Kenci Elgoibar 5 – Pedel 2 (Nazional A)
Clinica Dental Aldaz 3 – Lanbroa 0 (1. maila)
Rotulos Martin 2— Lojantzi 2 (Jub.)

### Idarraga kafeak 6. saria

**HAUNDIko jokalari erregularrena 02/03**
**JOKALARIA .................................... PUNTUAI**

1-Elkoro .......................................................
2-1. Gurrutxaga ............................................
3-Jakes ..........................................................
4-Gotzon........................................................
5-Igartua........................................................
6-Navarrete....................................................
7-Caro ...........................................................
8-Duarte .......................................................
9-Izagirre ......................................................
10-Leonardo..................................................
11-Arenas .....................................................

## AGENDA

### Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 23
17:15 Tecnomeca Elg.— Corazonistas (Kad. mu
18:45 Pneumax Elg. — Corazonistas **(Jub. mut.**
Domekia, 24
12:30 Tecnifuelle Elg. — Ereintza **(Senior mut.)**

### Esku Pilota, Ikastolan

Barixakua, 22
22:00 Lagunak — Mundarro (Jub.)

### Futbola, Mintxetan

Zapatua, 23
16:30 Haundi — Zarautz (Pref.)
Domekia, 24
12:00 Elgoibar — R. Sociedad **(Inf.)**
**16:00** Elgoibar — Urki (Neskak)

### Areto Futbola, Kiroldegian

Barixakua, 22
22:10 Lanbroa —T. Lacunza (1. maila)
Zapatua, 23
12:30 Lojantzi — Goierri A (Jub.)

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## hk.4 Langai

Euska! Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak auto rekanbioetarako arduraduna behar du. Erref. 91854/2

Debabarreneko enpresak kamareroa behar du. Erref. 92016/3

Durangaldeko enpresak simulaziorako arduraduna behar du. Erref. 89293/4

Durangaldeko enpresak ingeniaria behar du. Erref. 89292/4

Durangaldeko enpresak prozezatzailea behar du. Erref. 89291/4

Durangaldeko enpresak delineantea behar du. Erref. 89202/4

Durangaldeko enpresak administraria behar du. Erref. 92319/1

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

ESKAERA

Neska euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsaldez. 943 74 38 94

Erizaina eskaintzen da pertsona nagusiak edo gaixoak zaintzeko, etxean zein ospitalean. zr 652 76 86 73

Esperientziadun emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. zr 943 74 22 01

Astegunetan arratsaldez lan egingo nuke. .11 637 51 22 24

Neskak bere burua eskaintzen du arratsaldez etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. -tr 629 98 81 74

Tabernan lan egingo nuke. Esperientzia daukat eta euskaraz badakit. 71. 699 18 32 99

Emakumea sukaldari lanak egiteko prest. Hotelean lanean aritua. Esperientzia pintxo eta menuetan. 1T 943 74 32 26

ESKAINTZA

Neska euskalduna behar da gabonetako kanpainan poltsa denda batean lan egiteko. Curriculum-a San Frantzisko kaleko 43an utzi.

Neska behar da orduka etxea garbitzeko. rr 666 68 05 50

Pertsona bat behar da CNCko fresadoran lan egiteko. 73. 605 70 14 29

Mekanografoa behar da. a 943 74 11 82 (Goizeko 8:30etik 9:00etara deitu). Joseba.

Esperientziadun kamareroa behar da asteburuetarako. T1 943 74 37 71

## Etxebizitzak

♦ Larunbatetarako logela bat hartuko nuke alokairuan. -E1 658 74 55 23

Logela bat alokatzen dut. 699 91 31 69

Hiru logelatako etxea alokatzen dut Elgoibarren. a 943 74 27 47 (20:00-21:00)

62 m2ko etxea salgai. 3 logela, jangela, komuna, berogailua, ganbara. Amueblatua. Ubitarte Plazan. zr 659 77 72 27

Etxeo salgai Kalamua 2, kalean. 100m$^2$. Te 649 25 90 51

Logela bat alokatzen dut. 943 74 18 81

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan bi hilabetetarako.v 943 74 23 68

## Garajeak

Garajea alokatzen da Leku Ederren. 4. solairuan. 42 euro marraduna eta 48 euro itxia. a 660 04 21 59

4 Garajea salgai Leku Ederren. 943 74 17 14

Garaje marraduna salgai Arregitorren. Prezio interesgarria. 943 74 07 62/609 40 25 86

• Garajea hartuko nuke alokairuan Ikastola inguruan. a 669 09 45 05

Garaje marraduna salgai Leku-Ederren. 71 943-74 08 44/610 28 74 82

Garaje itxia alokatzen dut. -a- 943 74 17 02

## alstelakoak

Sofa eta salarako mahaia hartuko nuke. a 606 70 99 23

Zilarrezko eraztun bat galdu dut Plaza Handitik Santa Ana kalera bitartean. Harri lila bat du.s- 637 51 22 24

Panpin bat aurkitu dut Musika Eskola inguruan. 72 696 60 84 85

Volkswagen autoko giltzak aurkitu ditut BBVA inguruan. Udaltzaingoan daude.

## Salerosketak

♦ Kenwood KRC-179R radiocasset-a salgai. 40x4 watt. 5 preekualizazio, mute, 18 emisorako memoria. Karatula kengamia. Berria (bi hilabete), 90 watt-eko ALPINE bozgorailu. 2rr 652 71 84 34

Opel Zafira TDI salgai. 659 77 72 27

Urkotronik markako goxoki makina salgai. Urte eta erdi. Tenperatura bikoitza. Merkea. a 655 71 29 59

Keroseno txuriko berogailua salgai. Bi urte. 90 euro a 660 08 47 38

'4' 2. eskuko ziklomotore merkea erosiko nuke. a 647 25 47 51

Bebe car, haurrentzako aulkia salgai. Kapazoa, aulkia eta osagarriak. 943 74 05 54

Opel Calibra 2.0i salgai. 46.000 km, motor berria, extrak. SS-3227-AP tr 651 70 07 54

Mitsubishi Montero luzea salgai. Oso egoera onean. tr 943 13 30 64/639 05 46 70

2. eskuko baxu elektrikoa erosiko nuke prezio ekonomikoan. n. 647 25 37 68

CD-Radiocassete-a salgai. Alpine TDA-75 GOR. 3 urte, 12 CDtako kargadorea eta Kenwood bozgorailuak. 450€. te 943 81 65 35

99. urteko Trial-eko motorra salgai. Montesa Cota 315, matrikulatua. 2.700€. Botak eta olioa oparitzen ditut. v 660 42 48 55

98. urteko azaroko Seat Cordoba TDI salgai..a. 669 02 63 55

## Partikularrak

Klase partikularrak ematen ditugu. 616 05 99 86/625 42 05 49 (Olatz eta Bidatz)

• Klaseak emango nizkieke 16 urte arteko umeei.v 943 74 27 78 (Saioa)

gazte
informazioa

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Osteguna-ostirala: 17:00-20:00*
*Larunbata: 10:00-14:00*

# Agurrak



♦ Zorionak Amaia, hilaren 20an 9 urte bete zenituelako. Espero dugu egun ona pasa zenuela. Gurasoen eta Cristinaren partez.



• Zorionak **Naia,** hilaren 20an 2 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki Jakesen, aitxitxaren eta amamaren partez.



Zorionak **Josu Unzilla Sanchezi,** hilaren 23an, urtebete egingo duelako. Gurasoen, aiton-amonen, osaba-izeben eta lehengusuen partez.



• Ikusi arte **Ro!** Lana berrixa topau dozu, baina lagunak lehenguak gera. Bixar Ondarrura!!! Lankide ohiak.



• Zorionak **Mari Joseri,** azarOaren 8an urteak bete zituelako. Familiakoen partez.



♦ **Zorionak Julen Arregiri,** atzo, arazoak 21, 5 urte bete zituelako. Gurasoen, eta bereziki anaia Anderren partez.



• Zorionak **Unairi,** hilaren 19an 2 urte bete zituelako. Gurasoen eta batez ere, Ion, Asier, Haritz eta Olatzen partez.



♦ Zorionak **Estefaniri,** azaroaren 12an 10 urte bete zituelako. Familiakoen eta anai-arreben partez.

*Zorionak **Borjari,** azaroaren 23an 11 urte beteko dituelako. Familiakoen partez 11 tirakada belarritik eta muxu handi bat.



• Zorionak **David,** gaur 2 urte bete dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Jon Andoni Gomezi,** hilaren 24an 4 urte beteko dituelako. Ainararen eta familiakoen partez, muxu handi bat.



Zorionak **Raquel,** hilaren 24an 12 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez.




*Zorionak **Nerea Lizarraga Gurrutxagari,** hilaren 27an bere lehen urtebetetzea duelako. Aitxitxa-amama, birramama Maria, osaba-izeba eta lehengusu Maria, Nuria eta Juanen partez.



♦ Zorionak **Ion,** hilaren 24an 5 urte beteko dituzulako. Fam iliakoen partez.



• Zorionak **Nerea** eta **Aimar-i,** hilaren 27an urtebete egingo duzuelako. Gurasoen partez.

## BEKAK

**Gizarte zientziak**

Gizarte Soziologikoetako Zentroak Soziologia eta Politika Zientzietako ikertzaile gazteak prestatzeko 9 beka eskaini ditu. Beka bakoitza 8.800 eurokoa da. Epea: azaroak 25.

## JARDUNALDIAK

**Serrat**

Musiketan Zikloaren barruan Serraten "Versos en la boca" disko berriaren aurkezpena izango da Euskalduna Jauregian. Azaroak 24, arratsaldeko 20:00etan.

## IKASTAROAK

**Ingurumen kudeaketa**

Euskadiko Biologoeu Elkargo Ofizialak ISO 14.001 ingurumen kudeaketako sistemen ikastaroa antolatu du. Alderdi praktiko eta teorikoa izango ditu. Abenduaren 3, 4, 5 10, 11 eta 12an izango da. Epea: tokiak bete arte.

## LEIIAKETAK

**Txartel lehiaketa**

Zarauzko Gazte Lekuak urtea zoriontzeko txartelak egiteko lehiaketa antolatu du. Lanak disketean edo paperean entregatuko dira. Saria 160 euro. Epea: azaroak 19.

## LANA

**Adndnistrariak**

Donostiako Kulturaren Udal Patronaturako 6 administrari lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa. Goi mailako titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua eta euskarako 2. hizkuntza eskakizuna beharrezkoak dira. Epea: azaroak 25.

**Liburutegiko 3 laguntzaile**

Donostiako Kulturaren Udal Patronaturako liburutegiko 3 laguntzaile lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa. Goi mailako titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua eta euskarako 3. hizkuntza eskakizuna beharrezkoak dira. Epea: azaroak 25.

**Laguntzaile Teknikoak**

Donostiako Kulturaren Udal Patronaturako 4 laguntzaile tekniko eta 4 balio anitzeko lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa, Goi mailako titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua eta euskarako 2. hizkuntza eskakizuna beharrezkoak dira. Epea: azaroak 25.

**Liburutegiko laguntzaileak**

Donostiako Kulturaren Udal Patronaturako 11 laguntzaile tekniko eta liburutegiko laguntzaile lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa. Goi mailako titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua eta euskarako 2. hizkuntza eskakizuna beharrezkoak dira. Epea: azaroak 25.

# agenda

2002-X1-22




## Hiesaren ASTEA

**AZAROAK 1, martitzena**
21:30 Zine emanaldia
"Que nadie duerma"
Ongarri Zine Klubaren laguntzarekin

**AZAROAK 28, eguena**
10:00 Mahai informatiboa
Merkatu plazan
22:15 Zine emanaldia
"Que nadie duerma"

**AZAROAK 29, barixakua**
20:00 Hitzaldia
"Hiesarekin topatzea: barneko bizipenak"
Gaztetxean
21:30 Kontzertua
Arima Beltzaren azken lana
Herriko Antzokian

**AZAROAK 30, zapatua**
:00 Umeentzako jarduerak eta globoen banaketa eta gaztelu puzgarriak
Plaza Handian
Atxutxiamaikaren laguntzarekin
Aldi berean, mahai informatiboa eta lazoen banaketa eta "Biluzik" stand-a

**ABENDUAK 1, domekia**
*Hiesaren eguna*
13:00 Omenaldia txalaparta eta Haritz Dantzari Taldearen laguntzarekin
Plaza Handian
Ondoren, kontzentrazioa
Goizean zehar, mahai informatiboak

## 22 BARIXAKUA

19:00 ITXAROPENA ABESBATZAREN KONTZERTUA
Mezaren ondoren
Udaletxeko arkupeetan

## 23 ZAPATUA

13:00 JAIO ETA IRIONDO PRESOEI OMENALDIA
Plaza Handian
1';;00 HERRI BAZKARIA
Jaio eta Iriondo presoen alde
19:00 PARROKIKO ABESBATZAREN KONTZERTUA
San Bartolome parrokian
19:30 JAIO ETA IRIONDO PRESOEN ALDEKO KONTZERTUA
Taldea: "Kokein"
Gaztetxean

## 24 DOMEKIA

9:30 IKASTOLAKO MENDI IRTEERA
Santa Eufemiara
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola
9:45 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA
12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
1 2:30 HILDAKO JUBILATUEN OMENEZKO MEZA
San Bartolome parrokian
18:110 DANTZALDIA GELATXOREKIN
Jubilatuen Biltokian

## ZINE kluba



### "Que nadie duerma"

Zuzendaria: Jochen Hick.
Zine zirkuitu esperimentalean mugitu den zuzendaria proposamen berriarekin datorkigu, thriller bitxi batekin, alegia. Filmak badu kutsu politikoa edo konpromisozkoa eta probokazioa ere bilatzen du. Trama berezi hau girotzeko Hick-ek, Pucciniren Turandot operaren estreinaldiaren eszenatoki bihurturik agertzen den San Frantzisko hiriburua aukeratu du. Berlineko medikuntza ikasle bat da protagonista. Hipotesi bat dauka eskuartean; HIES-aren gaitza Estatu Batuetako gobernuaren huts egindako esperimentuetatik sortu zela. Frogatzeko San Frantziskora bidaiatuko du.

## NITZALDIAK

**Ione Goirizelaia eta Emilio Olabarria**

Elgoibarko Oinarrizko Eskubideen Aldeko Taldeak antolatuta, Ione Goirizelaia, Sozialista Abertzaleak taldeko kideak, eta Emilio Olabarria, EAJ-PNVko legebiltzarkideak, hitzaldi bana eskaintzekoak ziren pasa den azaroaren 21ean, baina agenda arazo batzuk tarteko azaroaren 28ra (osteguna) atzeratu behar izan dute antolatzaileek. Kultur Etxean izango da 19:30etatik aurrera. Bi hizlariak abokatuak dira, baina bakoitza gai baten inguruan mintzatuko da. Ione Goirizelaiak Garzonen autoei buruz hitz egingo du eta Emilio Olabarriak, berriz, Alderdi Politikoen Legeari buruz.

## 28 EGUENA

**19:00 HITZALDIAK**

Hizlariak: Jone Goirizelaia, Sozialista Abertzaleakeko kidea eta Emilio Olabarria, PNVko legebiltzarkidea

Kultur Etxean

Antolatzailea: Oinarrizko Eskubideen Aldeko Taldea

## OMENALDIAK

**Jaio eta Iriondo 18 urtez preso**

Askatasunak eta Gazte Asanbladak Jaio eta Iriondo preso elgoibartarrek 18 urte (3/4ak) gartzelan bete dituztela aldarrikatzeko omenaldia antolatu dute azaroaren 23an, zapatuan. Lehenik omenaldia egingo diete Plaza Handian 13:00etan. Ondoren, herri bazkaria izango da Gaztetxean. Tiketak Jai Alai eta Txuri-Beltz tabernetan eskuratu daitezke. Langileentzako prezioa 15 eurotakoa da eta langabetuentzat 10 euro. Arratsaldeko 19:30etan, berriz, Kokein musika taldeak disko berria aurkeztuko du Gaztetxean. Azkenik, azaroaren 27an, asteazkenean, manifestazioa izango da Plaza Handian 19:30ean. Bestalde, Josu Lariz eta Fernando Bert presoei idatzi ahal izateko helbidea zabaltzeko eskatu digute: Josu Lariz. Carcel Central piso 4, Celda 1. Montevideo (Uruguay). Fernando Bert Arretxea: Maison d'arret homes. Fleury Merogis. 313948 D2 7, Av des Peupliers. 91705 ste Geneuvieve des Bois Cedex.

## KONTZERTUAK

**Parrokiko korua**

Parrokiko koruak Perossiren Bigarren Meza Pontifikala abestuko du zapatuan, azaroaren 23an, 19:00etako mezan. Santa Sezilia Egunaren (Azaroak 22) omenez izango da kontzertua eta besteak beste, Tchaivcovskiren Santa Maria eta Bach-en kantata abestuko dituzte.

# zine

LGIA

**"El viaje de Carol"**

22, barixakua: 22:15

23, zapatua:19:30-22:15

24, domekia: 19:30-22:15

25, astelehena: 22:15

**"Stwart Little II"**

24, domekia: 16:30

**"Que nadie duerma" (Z.K.)**

26, martitzena: 21:30

28, eguena: 22:15

**"007, Muere otro dia"**

22, barixakua: 19:30-22:15

23, zapatua: 17:00-19:30-22:30

24, domekia: 17:00-19:30-22:30

25, astelehena: 19:30-22:15

26, martitzena: 19:30-22:15

27, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR, Ria**

**"L**

22, barixakua: 19:30-22:15

23, zapatua: 17:00-19:30-22:15

24, domekia: 17:00-19:30-22.15

, 25, astelehena: 19:30-22:15

26, martitzena: 19:30

27, eguaztena: 19:30

I

1A1(kr du iteike,n Ci



## "El viaje de Carol"

**Zuzendaria: Imanol Uribe.**

**Antzezleak: Juanjo Ballesta, Clara Lago, Maria Barranco.**

Carol ama espainiarra eta aita iparamerikarra duen neskatxa gaztea da. Amarekin batera Espainiara bidaiatuko du lehen aldiz 1938. urteko udaberrian. Carolen gurasoak bananduta daude eta berak izugarri maite du aita, nazioarteko brigadetako pilotua dena. Dena dela, Carolen bidaia, bame bidaia ere izango da. Bere aitonaren bizitzari buruzko lekzioek, "Tomiche"ganako sentitzen duen maitasunak eta Marujarekin lortzen duen konplizitateak sentimentuz betetako nagusien mundura jauzi egiteko aukera eskainiko diote Caroli.

N

rn

# erretratu zaharra

2002-XI-22



Aste honetako erretratu zaharra **Nemesio Ansolak** laga digu. 1936. urteko da argazkia, dudarik gabe data esanguratsua. Garai hartan, Ondarruko itzulia mendiz-mendi egiteko ohitura zegoen. Koadrila askok egiten zuten mendi buelta hau. Argazkian ikusten dugu koadrila horietako bat, Arnoateko baserri atarian, hamarretakoa egiteko prest.
Gogora dezagun zein diren argazkian azaltzen direnak.
Ezkerretik eskumara, zutik: **Nemesio Ansola, Urban Konde (t), Julian Bilbao, Juan Jose Galdos (t), Sabino Osoro** (t) eta **Asensio Olalde** (t).
Makurtuta, goitik behera: **Julian Ansola(t)** eta **Pako Juaristi (t).**



*ESKERTZA*

*2002ko azaroaren 17an, 67 urte zituela hil zen*

*TOMAS PEÑA BRIZen sendiak,*

*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako dolumiank,*

*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*I. URTEURRENA*
*2001eko azaroaren 24an, 78 urte zituela hil zen*
*EUGENIO LARIZ MUGURUZAren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan*
*larunbatean, hilak 23, arratsaldeko 20:00etan eta Altzolako*
*Parrokian, hilak 24, goizeko 11:00etan*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



BASI/7(7` \)1 RENT
Tel.: 902 103 287

GARBIKETA • MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA
Sigmako industrialdea - 7. eta 8. pabiloiak

MANTENDU EZAZU
ZURE AUTOA
GARBI ETA PREST!

KONPONKETA TAILERRA



GARBIKETA
2,50 E

GARBIKETA
AUTOMATIKO PUBLIKOA



MANTENIMENDU OROKORRA OUO, BAIAZTA
eta PNEUMATIKOEN AIDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRAIA

GARBIKETA
BEREZIA
4,50 €

GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
3,50 €

SIGMAKO
INDUSTRIALDEAN
GAUDE

ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

San Frantzisko, 43 -1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria
1 0:00etatik-1 2:30era
1 5:00etatik-20:30era

Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 455 20600 EIBAR

MENDIZALE ELKARTEAREN

# VIII. ARGAZKI LEHIAKETA



GAIA mendia NEURRIA librea

KOLOREETAN nahiz ZURI-BELTZEAN

KOPURUA 3 argazki gehienez

NORI ZUZENDUA

Elgoibartarrei eta kanpoan bizi diren

Morkaiko Elkarteko bazkideei

ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPEA

abenduak 12, osteguna, Morkaikon

**Epaimahaiaren saria**

**180 euro**

**Ikusleek emandako botoen bidezko saria**

**120 euro**

Oharra: argazkiak non eta noiz ateratakoak diren jarri behar da

Aurkeztutako argazki guztiekin erakusketa egingo da

kultur etxeko erakusgelan abenduaren 13tik 22ra bitartean

MORKAIKO
MENDIZALE ELKARTEA